

KONTU KONTARI

ATTULI ETA BARKOXE KEHEILLEREN XAHAKOA PASTORALEAN

Aurten Barkoxek hartu du pastoralaren lekukoa, eta nola gainera. Barkoxtarrak beti izan dira euskal kulturaren eta pastoralaren zale handiak eta oraingoan ere garbi utzi dute Barkoxek horrela jarraitu nahi duela. *Barkoxe beti haboroxe*¹ dio bertako atsotitzak eta aurten ere erran zaharra ongi betetzen ahalegindu dira. Patrik Keheille barkoxtar semea izan da pastoralara idatzi duena eta duela bost urte zendu zen Attuli kantu-egile eta idazle barkoxtarra idatzi duen bigarren pastoralerako aukeratutako süjeta².

Ezagutzen ditugun kroniken arabera, jadanik, hamazazpi dira, Barkoxek jokatu dituen pastoralak: Juana Parisekoa 1777an, Juan Arkekoa 1792an, Aimunen lau semeak 1818an, Abraham 1821ean, Napoleon 1880an, Roland 1883an, Mustapha 1910ean, Saint Jacques 1911n, Guillaume Iia 1929an, Etxahun koblakari³ 1953an, Aimunen lau semeak (zati bat soilik) 1954an, Etxahun koblakari 1962an, 1974an eta 1986an, Herriko semeak 1998an (hau ere Patrik Keheillerena) eta aurten, uztailaren

¹ Haboro: Gehiago. Haboroxe = gehixeago.

² Süjeta: Pastoraletako protagonista nagusia.

³ Koblakari: Bertsolaria zubereraz.

25ean, igandearekin, uztailearen 31n, larunbatarekin eta agorri-laren 8an, igandearekin, jokatu zuten Xahakoa. Barkoxeko pastoral hauetan izugarri ongi islatzen da pastoralak denboran zehar izan duen bilakaera. Hastapenetan sailduen eta kanpoko buruzagi handien bizitzak jorratzen zituzten, eta 1953. urte-tik, hau da Etxahun-Irurik idatzitako **Etxahun koblakari** pastoralak jokatu zuten zerez geroztik, sùjetek beti izan dute lotura es-tua Barkoxerekin eta euskal kulturarekin.

Hasiera batean, Etxahun Barkoxe izan zen, behin eta berriz, errepikatu zen sùjeta, barkoxtarrak ez baitziren zorigaitzeko koblakariaren trajeriarekin akitzen, baina 1988ko pastoralerako, Patrik Keheille herriko semea hautatu zuten zerbait berria egin zezan. Ordura arte urraturiko ildoari eutsi nahi zioten, hau da, Barkoxerekin eta euskal kulturarekin loturiko pastoralak nahi zu-ten, baina denbora berean, zerbait berria nahi zuten, jadanik Etxahun koblakari pastoralak lau aldiz emana baitzuten. Eta hor-rra, Keheillek denok harritu gintuen sùjeta hirukoitza jorratzen zuen pastoralarekin. Barkoxeko hiru seme landu zituen aipaturiko pastorean: Beñat Mardo koblakaria, Pierra Topet Etxahun eta Leon Üthürbürü, XIX. mendean Ameriketara aberastutakoa. Hura izan zen Keheilleren lehen pastoralak eta lehen garaipena arlo labainkor horretan, biziki ederra eta ongi eratu atera baitzi-tzaion. Barkoxtarrek eta pastoralak ikustera hurbildutako guztiek izugarri ongi hartu zuten Patrik gaztearen lehen pastoral hura.

Oraingo hau Keheilleren bigarren pastoralak izan da. Dena den, esan beharra dago urte hauetan zenbait ikusgarri landu di-tuela eta arrakasta handiz gainera. Horiertako ospetsuena *Aintzi-na pika* izenekoa izan delarik. Lehen aitatu bezala, Barkoxek beti barkoxtarra nahi, eta bide horretatik abiatuta, Keheillek Alex-is Etxekopar-Attuli koblakari zendu berria (2005ean) hautatu du sùjetarako. Horretarako barkoxtarrek eta gainerako zuberota-rrek gehien ezagutzen duten kantuaren izena, *Xahakoa* (zaha-toa) izenekoa hartu du titulu gisa. Horra hor aipaturiko kantua, bera izan baita pastoral honen abiapuntu eta aitzakia.

Xabakoa (1950 urtean egina)

*Xabakoa, xabakoa, xabakoa, xabakoa,
papo gorri eder barroa
zer adiskide arraroa.*

*Xabakoa, xabakoa, xabakoa, xabakoa,
eztiki erriz txiriñoa
üdüritz kantüz txoriñoa.*

*Ai zer plazer ezinagoa
xabakoaren gozoa,
ikertzen de(re)it bihotz xokoa,
alageratzen gogoa.*

Arrapika:

*La, la, la, la., la, la, la, la, la
la, la, la, la, la, la, la, la, la.
Düdalarik idor aboa,
hürrünegi ütür freskoa, .
hartzen düit bular dibinoa,
eüskaldün xabakoa.*

Xabakoa, xabakoa, xabakoa, xabakoa.

*Akit ondoko prezioa
gizonaren inganioa.*

Xabatoa, xabatoa, xabatoa, xabatoa.

*Lankian zü gabe anoak
segürki mebe balioa,
zabaltürrik zure moskoa
txerkatzen da xilotüa,
hasperen bat hantik badoa,
altxa ordüan besoa.*

Ni, zenbait lagunekin batera, uztailaren 25eko emanaldira hurbildu nintzen. Eguraldi kaskarra zen, triste samarra, hala eta guztiz ere, barkoxtarrak prest ziren pastoralari ekiteko. Goize-

ko 10etan Jeanot Etxeto apezak meza ederra eman zuen Barkoxeko elizan. Eliza jende mukuru zen. Zuberoan bada beste erran zahar bat horrela esaten duena: *Goizanko meza edderra bada, pastorala ere edderra date*⁴. Eta goizeko meza eder hark arratsaldean jokatu behar zenaren aitzindaria izan zen. Meza bukatu ondoren, *karrika-üngürü*⁵ ezin ederragoa burutu zuten. Arizaleak⁶ garai hartako auto zaharretan ibili ziren herrian goiti eta herrian beheiti. Euskaldunak XX. mendeko hasierako arropaz jantzirik zihoazen eta aleman naziak Gestapoaren edota Wehrmacht-eko uniformeez eta SS-etakoen gabardina handiez. Auto horietako batean ohiko apezpiku, apaiz eta aingeruekin batera, hiruzpalau moja zihoazen. Euskaldunak irriz eta kantuz, alemaniarrek nazien modura agurtzen eta erlijiosoak herritarrak behin eta berriro bedeinkatzen.

Gero, Zuberoako Ikastolak antolatutako bazkari eder baten inguruan bildu ziren denak, bapo bazkaltzeko eta kantu zuberoatar ederrez hango bazterrak alaitzeko. Oholtza Barkoxeko eta Eskiulako lurrak banatzen dituen Josibai izeneko ibaitik gertu zen. Oholtzaren gibelean Mandelü mendia ikusten zen eta eskuin aldean, oihanez josirik, Altaparroa izeneko mendi ederra. Bi mendi hauek Eskiulako lurretan daude. Harmailen atzeko aldean berriz, Ahargo mendia Barkoxeko lurretan. Eguzkia ez zen inondik agertzen, eta beste urtetan igarotako bero zapa saihesteko edo, harmailak zenbait intxaurrondoren gerizpean ezarririk ziren. Bertan zen Allande Sokarros kazetari zuberotarrak esan zidanez, intxaurrondoa omen zen Zuberoako ikur zaharra, orain erabiltzen duten lehoi baskoia baino zaharragoa. Allandek Zuberoako atsotitz zahar baten jakituriaz ohartu gintuen: *Intzagortzearen*⁷ *itzalpean loak hartzen düana marrantatzen da.*

⁴ Date: Izango da. Geroaldiko aditz trinkoa.

⁵ Karrika-üngürü: Kalez kaleko ibilaldia.

⁶ Arizale: Antzezlea, aktorea.

⁷ Intzagortze: Intxaurrondo zubereraz.

Eguraldia ez zegoen bat ere segurua, eta inguruko mendi horietatik hodei beltz-beltzak hurbiltzen zitzaizkigun, gero eta gehiago, Barkoxe aldera. 3,30etan, puntu-puntu, hasiera eman zioten pastoralari. Zuberoatik eta Euskal Herriko bazter guztietatik etorritakoek harmailetan prestatuturiko 2.400 jarlekuak betetzen zituzten.

Keheillek hogeita lau jelkalditan⁸ idatzitako trajeria⁹ arrunt ederra iruditu zitzaidan. Ikus-entzuleek, behin eta berriro, txaloaldi luze eta beroez saritu zuten arizaleen lana. Egia da testua ederra eta egokia zela, baina baita Fabian Lexardoirentzat¹⁰, Sophie Larrandabürükantu irakasle-moldatzaileak, eta Catherine Artzanüthürri dantza-irakasleak egindako lana ere. Ene ustetan, arizale guztiek izugarri ongi jardun zuten. Ene zorion beroena pastoral honetan modu batean edo bestean parte hartu duten guzti-guztiei, arte-lan ederra egin baitute. Keheillek bigarren pastoral honekin ederki erakutsi digu etorkizun hurbilean ere pastoral ederrak onduko dituela.

Aipa ditzadan segidan pastoral honetan izan diren zenbait bereizgarri:

1.- Attuli erreferentzia edo ardatza izan da, estakurua¹¹ agian hobeto esanda, Barkoxen XX. mendearen hasieran gertatutako zenbait pasarteren berri emateko, halanola: II. Gerla Handiak Barkoxera ekarritako ezbeharrak, nazien okupazioa, 1944ko uztailean naziek egindako sarekada eta hilketa, askapenak sorturiko bozkariora, gazteen erromeriak, gerra ondorengo maskaraden berrabiatzea eta nesken sartzea, Etxahun-Irurik ekarritako pastoral berria, ...

2.- Patrik Keheille pastoral-idazleak arizale jardun du.

⁸ Jelkaldi: Pastoralaren kapitulu modukoak.

⁹ Trajeria: Pastoral bati jokatu aurretik ematen zaion izena.

¹⁰ Errejenta: Pastoral zuzentzen duena.

¹¹ Estakuru: Aitzakia.

3.- Pastorealean zehar satan-dantza ugari izan dira, eta horietan aritu diren dantzariak, neskak eta mutilak, biziki onak.

4.- Artaldea birritan igo dute oholtzara, eta bertan utzitako gorotzak garbitzen frantses mugazainak aritu dira ikus-entzuleen irri eta barreak sortaraziz.

5.- Kantuak, bai Attulirenak eta baita Patrik-ek eta beste lagun zenbaitek egindakoak izugarri ederrak suertatu dira. Nik bat aipatzekotan, elizan eta oholtzan kantatu zuten *Argizagia jakile*¹² izenekoa aipatuko nuke, denbora berean hagitz alege-ra eta solemnea iruditu baitzait.

Argizagia jakile

- *Esküalde güzietan jenteak, basi begien zabaltzen
Hitler-en lazdiurek beitzütüen, beti haboro zanpatzen.
Moulinen ildoan beben ere, herritiarrak antolatzen
ebunka lagün basi beitziren, bele arrotzen ohiltzen.*

Arrapika:

*Ülünpeko güdükariek
bele beltzak kitzikatü
ta ibesle igaraileek
esperantxa zirikatü.*

- *Eüskaldün makila esküetan, argizagia jakile
Barkoxetik gauaz gau igaran, hiru mila bat ibesle.
Bele beltzek üxütürük bena, ebilten düdarik gabe,
lagünzale ümilak zütüen, Pelento ta Gorritepe.*

- *Gerla denbora lazgarrietan, biziaren itxaroan,
etsitürük egünaz pausatzen, karrika zolako bordan.
Landar ühaitzaren jarraikitzez, ondotik bortü xendetan
ebilten Belaiko portüala, libertate esperantxan.*

6.- Den-dena ederra eta ondotxo burutua iruditu bazait ere, esan beharra daukat ohiko *güdüken* (borrokaldiak) falta suma-

¹² Argizagia jakile: Ilargia lekuko zubereraz.

tu dudala. Badakit ez dela ezinbesteko elementua, baina historiaren garapena ikusirik, uste dut izan zirela zenbait abagune horretarako egoki zirenak. Horietako bat naziek Kotabarren baserriko mutil gaztea tiroz hil zutenekoa.

7.- Kontuan izaki Attuli duela bost urte bakarrik hil dela, eta haren heriotzaren oroitzapen hutsak oraindik gogor kolpatzen duela senideen bihotzetan, Keheillek finezia eta dotorezia handiz burutu du trajeriaren bukaera, hau da, süjetaren heriotzaren uea. 24. jelkaldian, ate zuritik aingeruak irten ziren eta hiru bersetetan süjetaren heriotzaren berri eman ziguten honako moduan:

170.- *Jinko bonak arradeitü
gure barkoxtar lagünak
ützüliño bat eginik
harro dütiie bihotzak.*

171.- *Gizonak hiltzen badira
poetak beti bizitzen
idatzirik bontarzünak
ez beitira itzaltzen.*

172.- *Gure gogoan egonen
bitzen aberastarzüna,
aitzina beha dezagün
kantoreen oiharzüna.*

Eta hiru berset dotore hauen gibeletik, Keheillek jakin zuen bukatzen Attuliren zenbait kanturekin egindako popourri eder batekin: *Pilotarien biltzarra*, *Sorleküa kitatü*, *Bedatsea*, *1995eko Xorrotxen kantorea*, *Builtrea*, *Jiten direnean*, *Gizona gizon*, *Etxahuni*, eta amaitzeko *Algarri esküak emanik*. Ez da esan beharrik, ordurako, Keheillek publikoaren bihotza ongi-txo irabazia zuela.

Ondoren, ohiko *antxerak* izan ziren. Antxerak enkante modukoa izaten da, eta bertan Zuberoako herrien arduradunek

hartzen dute parte dirua eskainiz. Gehien eskaintzen duen herriak irabazten du, eta pastorala ikusten aritu diren herri horretako biztanleek eskubidea dute oholtza gainean *Muñeiñak* eta *Aintzina Pika* izeneko dantzak egiteko. Beraientzat ohore handia da zein dantzari on diren beste guztien aurrean erakustea. Ontsalaz, aurreko urteko pastorala egin duen herria edo hurrengo urtean egingen duena ahalegintzen dira antxeretan irabazten. Aurtengo lehen emanaldian, joan den urtean *Belagileen trajeria* izeneko pastorala eman zuen Aloze-Ziboze-Onizegaina izeneko udalerririk irabazi zuen 1.600 euroekin. Lehen emanaldiko antxera haietan hamar herri lehiatu ziren.

Uztailaren 25 hartan, Zuberoako ekia ez zen Barkoxen izan, eta lantzerra¹³ han ibili zen pastorala zenbait momentutan arriskuan jarritz. Hala eta guztiz ere, pastoralak zortea izan zuen bigaude, eta bukatu bitartean ez zuen zaparrada handirik bota. Bota zuenerako jendea xapito¹⁴ azpian zegoen zintzurra bustitzen, eta horrela egonik, haiei bost axola zaparrada. Gaueko 11,30ak arte han bildutakoak berriketan eta kantuz aritu ziren, gero Ikastolak prestatutako afari goxoaren inguruan gaueko ordu ttipiak arte jarraitzeko. Gu lehenago abiatu ginen, gaueko 9ak aldera, eta oholtzaren aitzinetik pasatzean han ikusi genituen bospasei neskak eta muttiko makilekin pastoraleko pausoak egiten. Keheillek eta Barkoxek badute harrobi gaztea.

Joseba Aurkenerena Barandiaran
Urruñan, 2010eko uztailaren 27an.

¹³ Lantzer: Langarra. Zuberoako euri mota.

¹⁴ Xapito: Jaietan jartzen diren estalki edo toldo handi horiek.